


Futbola

# Merida berriz ere borrero?

Iruretak iragarritako hamaikakoa zelairatuko du, eta etxean utzi ditu Yaw eta Purk




**29**  
JARDUNALDIA

**Merida**

**Municipal, 17.00**

Lopez de la Fuente



**Realak**

**Entrenatzailea:**  
Sergio Kresic

**Aulkian:**  
1 Iru  
12 Pissarev  
15 Corino  
11 Quique Martin  
19 Guerrero  
27 Vucevic

**Etxean:**

Irabazi	3
Berdindu	6
Galdu	4
Golak alde	11
Golak kontra	13

**Orokorrean:**

Postua	20
Puntuak	27 -15

**AZKEN EMAITZAK**

89-90	-	91-92	-	93-94	-
90-91	-	92-93	-	94-95	-

**Entrenatzailea:**  
Javier Iruretagoiena

**Aulkian:**  
23 Arteaga  
17 Ramirez  
15 Imanol  
7 Imaz  
22 Uria  
16 Luis Perez


**Kanpoan:**

Irabazi	3
Berdindu	6
Galdu	5
Golak alde	19
Golak kontra	25

**Orokorrean:**

Postua	9
Puntuak	41

**M**erida izango du gaur aurkari Realak. Iruretak ziurrenik atzo iragarritako hamaikakoa zelairatuko du gaur arratsaldean, eta, beraz, besteak beste, Miguel Ramirez berriz ere aulkian eseriko da. Realeko entrenatzaileak beste bi atzerritar aulkian utziko ditu: Ghanako Yaw eta Austriako Purk. Berak ez zituen fitxatu.



Javier de Pedro hamaikakoa izango da aspaldiko partez.

ANDER GILLENEA

Iruretak atzo Anoetako estadioko prentsaurrekoan aitortu zuenez, zenbait aldaketa izango dira hasierako hamaikakoa, baina ez zuten aurreratu zeintzuk izango diren aldaketa horiek. Dena den, osteguneko saioan ikusi zenaren arabera, Alberto Albistegik —zigorra beteta dagoneko—, Javier de Pedrok eta Gica Craioveanuk tokia izango dute hasierako ekipoan. Miguel Ramirez, Jokin Uria eta Luis Perez izango lirake kasu horretan aurreko asteko hamaikakotik kenduko lituzkeenak entrenatzaileak.

Ramirezi buruz hauxe zioen Javier Iruretak atzo: «Ekipoa ondo dago. Berak bihar —gaur— jokatzeko aukera izan badu, baina baita hasieratik ez aritzeko ere. Esaten duzue fitxaketa

deigarria izan zela, baina nik uste dut gauzei beste era batera deitu behar zaiela. Ez da harrizkoa bera aulkian izatea orain. Atzealdea sasoi onean da eta horrek zaildu egiten dizkio gauzak Ramirezi. Erdian ere joka dezake, baina aukera gutxiago dauka hor jokatzeko».

Oscar de Paulari buruz ere izan zituen hitz batzuk Iruretak: «Aurreko partiduko bideoa ikusita, egia da ez zela fin aritu. Zelai erdian eskuinaldean bera edo Luis Perez jarri da nire zalantza, baina nik uste dut horrela motibazio handiagoarekin jokatu duela De Paulak. Idiak ez eskuinean? Ez, ez dagokio oso ondo postu hori Iñigori».

Hegaletatik jokatu behar omen du gaur Realak, «Meridak hiru zentralako sistema erabiltzen

## Zorrotzagoa

• ENEKOITZ ESNAOLA •

Realak hamar partidu daramatza jarraian galtzeke. Gisa berean segitzeko aukera ona dauka gaur Meridan. Ez baldin badu galtzen, Iriarteren marka berdinduko du Iruretak: 11 partidu galtzeke. Iriarteri Valenciak eten zion bolada ona. Meridak Iruretari eten diezaioke. Ikusi egin behar. Ez nintzateke harrizko. Hamaika ikustekoak jaiok gara.

Gaur galtzeaz ez nintzatekeela harrizko diot; izan ere, Iruretak kanpoan oraindik galdu ez badu ere, azkeneko lau partiduetan beste hainbeste berdinketa lortu ditu. Egia da neurketa horiek irabaz zitzakeela pixka bat hobeto jokatuta, baina baita galdu ere, San Mamesekoa izan ezik (partidu hura beste bi egun jokatzaren arituta ere, irabazi igoal ez zukeen irabaziko, baina ezta galdu ere). Realak ondo ari da kanpoan baina, zerbait eskatzen hasita, zorrotzagoa izateko eskatuko nioke. Gainera, denboraldi honetako berdinketek ez dute orain artekoen balio bera. Horregatik dago batzuetan kanpoan irabazi beharra. Gaur, kasu.

duelako». Meridako Sergi Kresic entrenatzaileak bi aldaketa egingo ditu hasierako taldean: Quique Martin eta Vicevic orde, Jose Maria eta Angel Luis zelairatuko ditu. Javier Irureta tekniko denetik, Realak talde sendoa duela zioen Kresicek. Bestalde, zelaia oso gaizki dago. X

# La Casa del Café

Juan Irujo S.A.  
DONOSTIA